

## **DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2014**

### **EUSTAT**

1. Estatistika eta matematika metodologiaren alorreko beka

1.- Izenburua

**ESTADISTIKA ETA MATEMATIKA METODOLOGIAREN ALORREKO BEKAK**

2.- Araua

EBAZPENA, 2012ko urriaren 16koa, Eustateko zuzendari nagusiarena. Ebazpen horren bidez, prestakuntza eta ikerketarako bi beka deitu dira estatistika-ekoizpen ofizialaren estatistika- eta matematika-metodologiaren alorrean. Bi beka horiek 2012ko urriaren 17ko EHAAren (202. zk.) argitaratu dira.

EBAZPENA, 2012ko abenduaren 10ekoa, Eustateko zuzendari nagusiarena. Ebazpen horren bidez, prestakuntza eta ikerketarako bi beka esleitu dira estatistika-ekoizpen ofizialaren estatistika- eta matematika-metodologiaren alorrean. 2012ko abenduaren 21eko EHAAren (247. zk.) argitaratu da.

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Prestakuntza eta ikerketarako beka estatistika-ekoizpen ofizialaren estatistika- eta matematika-metodologiaren alorrean, estatistika-ekoizpen ofizialeko ikerketa eta garapen gaietan profesionalen espezializazioa sustatzeko lanarekin jarraituz.

Prestakuntza beken helburuak bi dira:

- a) Espezializazio osagarria lortzea estatistika eta matematika aplikatuaren alorrean.
- b) Espezializazio osagarria lortzea estatistikarako softwarearen alorrean.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

- 2012ko abenduaren 10ean, Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística-ko zuzendari nagusiak ebatzi zuen beka horiek Imanol Montoya Arroniz-i eta Inés Garmendia Navarro-ri esleitzea.

- Aipatutako bi prestakuntza-beka horien esleipendunek izendapena onartu zuten eta euren lana egiten hasi ziren 2012ko abenduan. Horrekin lotuta, estatistika-ekoizpen ofizialaren estatistika- eta matematika-metodologiaren alorrean prestakuntza eta ikerketarako bekaren esparruan landutako gaien hileko memoria bana egin zuten.

- Imanol Montoyak eginiko memorian, "Arazketa selektiboari" buruz estatistika- eta matematika-metodologiaren alorreko prestakuntza eta ikerketarako bekaren barruan 2014. urtean landutako gaiak, Metodologia, Berrikuntza eta I+G Arloko arduradunaren oniritziarekin, honako hauek izan dira:

- EUSTATEko lan-taldeari aurkeztea.
- Programaren prototipoa SASen, arazketa selektiborako.
- Koaderno teknikoaren metodologia-zatiaren aldaketa eta hobekuntza.
- Arazketa selektiborako SAS makroetarako erabilera-eskuliburua prestatzea.

- Area txikien metodologiaren berrikuspena.
- Berrikuspena eta hobekuntzak SAS makroetan, arazketa selektiborako.
- Abstract-aren bidalketa “Small Area Estimation 2014” biltzarrera.
- “Small Area Estimation 2014” biltzarrerako aurkezpena prestatzea.
- “Modelos Mixtos” (Eredu Mistoak) ikastaroan parte hartzea. Ikastaro hori UPV/EHUko Bioestatistikako Ikerketa Taldeak antolatu du.
- “Small Area Estimation 2014” biltzarrerako aurkezpena prestatzea.
- “Small Area Estimation 2014” biltzarrerako aurkezpena prestatzea.
- “Small Area Estimation 2014” biltzarrean aurkezpena egitea, Polonian.
- Koaderno tekniko amaitzea.
- Arazketa selektiborako SAS makroak amaitzea.
- Arazketa selektiborako SAS makroetarako erabilera-eskuliburua amaitzea.
- Amaierako aurkezpena EUSTATEko lan-taldeari.
- Area txikien aurkezpena.
- Amaierako aurkezpen orokorra EUSTATI eta Eusko Jaurlaritzako Estatistika Organoei.

- Halaber, Inés Garmendiak eginiko memorian, “Statistical Matching” gaiari buruz estatistika-eta matematika-metodologiaren alorreko prestakuntza eta ikerketarako bekaren barruan 2014. urtean landutako gaiak, Metodologia, Berrikuntza eta I+G Arloko arduradunaren oniritziarekin, honako hauek izan dira:

- Lan-taldearen aurrean statistical matching metodoak erakusteko power-pointa prestatzea. Horretarako, mintegiaren eskuliburua eta beste erreferentzia batzuk erreparasatu dira.
- Eredu lineal orokorreari buruzko ikastarora joatea Leioan, urtarrilaren 22-23-24an.
- Inkestak lotzeko aplikazio praktikoa bideratzeko helburuarekin, proposamen bat prestatzea, honako bi inkesta hauek lotzeko: Osasun Sailak 2003an eginiko "Osasunari buruzko inkesta" eta Eustatek 2012an eginiko "Kapital sozialari buruzko inkesta".
- Ekarpene bana prestatzea CIMIE biltzarrerako eta psicothema aldizkarirako, PISA eta TALIS inkesten bidez lortutako emaitzak eta Rko mice paketea aurkeztuz.
- ECV (Bizi Baldintzei buruzko Inkesta) eta PRA (Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkesta) izeneko inkesten informazioa daukan fitxategi sintetikoa lortzeko lehenengo urratsak ematen hastea (aldagai komun eta espezifikoak hautatzea, esplorazio-analisia, etab.).
- ECV eta PRA inkestetako informazioa daukan fitxategi sintetikoa lortzea, ECV fitxategian PRA2 aldagaia egotzita.
- ECV eta PRA inkesten lotura amaitzea.
- ECV-PRA loturarako programatutako R funtzioak antolatzen hastea, R pakete bat sortzeko.
- ECV eta PRA inkesten loturaren emaitzak bistaratzea.
- Koaderno tekniko idazteari berrekitea.
- Koaderno teknikoaren kasu praktikoa idaztea.

- ECV-PRA loturarako sortutako funtzioetan oinarrituta, inkesten loturarako R paketea garatzen hastea eta komunikazio-proposamena bidaltzea Santiagon egingo diren R Erabiltzaileen VI. Jardunaldietarako.
- Koaderno teknikoaren amaitzea.
- Mikrodatuen fitxategiak lotzeko R paketearen programazioarekin jarraitzea.
- R paketearen programazioarekin jarraitzea, Santiagon egingo diren R Erabiltzaileen VI. Jardunaldietan aurkezteko.
- Inkestak lotzeko R paketea azaltzeko bineta bat idaztea. Paketearekin berarekin banatuko da.
- Aurkezpena R Erabiltzaileen VI. Jardunaldietan, Santiagon, urriaren 23-24an.
- Koaderno teknikoaren argitaratzeko prestatzea (itzulpenak euskarara, ingelesera).
- Amaierako aurkezpena EUSTATEko lan-taldearen (ONR) aurrean.
- Bekaren amaierako aurkezpena EUSTATi eta Eusko Jaurlaritzako Estatistika Organoei.